

ANAITASUNA

273. zenb.

1974.eko apirilaren 15ekoa

Pelota, 4 - 1.º - Bilbao-5
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

Donostiako Euskal Kultur Mintegia



Orain dela bost bat urte sortu zèn ikastetxe honetan —Donostiako Zuzenbide Fakultatean— euskaldunik ba ote den norbaitek galdetuko balu, ez ginateke gehiegi harrituko, izan ere euskaldungoa oraindano ez baita narbarmendu.

Baina, gauza guztiei bezala, honi ere bere denbora eman behar zaio; eta ba dirudi, bere sasoia orain datorkiola.

Aurreko urteetan, euskarazko ikastaldiak eta alfabetatze kanpaina nahiko ondo joan ziren. Baina, unibertsital mailan geundenez, zertxobait gehiago nahi genuen; eta, hori dela bide, jendea biltzen eta geure gogo, ahalmen eta helburuak neurtzen hasi ginen urte sarreratik. Mugaketa batzuekin, hauk^o dira, hitz bitan, gure orain arteko lorketa eta helburuak:

1. Hirurogei bat lagun dabilta, euskarazko ikastaldiak ematen eta alfabetatze kanpainan lan egiten.

2. Onhartua izan da ofizialki, zuzendaritzaren aldetik, «Euskal Kultur Mintegia» (E.K.M.) elkarte.

Berrogeitamar bat lagunek osatuko dute oraingoz talde hau.

3. Elkarte honen ekintzak zuzentzeko, ba dugu gelatxo bat eta mintegi lanetarako behar genezakeen beste gelarik erabiltzeko baimena ere bai. Mural edo albistegi bat ere laster ukanen dugu geure eskuko.

4. Aurtengo ikastarorako bi mintegi antolatu dira: Euskal Herriko Kondairaz bata eta Kooperatibismoaz bestea.

5. Mintegi hauen barruan, gaiarekin zerikusia eduki dezaketen zenbait hitzaldi eratuko dira. Horretaz gainera, bizpahiru hitzaldi antolatu nahi genituzke, Fakultate osoari eta nahi duten guztiei irekiak izanen direnak.

6. Jaialdi berezi baten eraketa ere aurrerabidean doa.

Beste zenbait asmo eta helburu ere ba dugu geroari begira. Baina, oraingoz, ekintza hauk guztiok oinharri sendo batzuen gainean craikitzen hasi behar dugu: hauxe da gure lehen jomuga. Beraz, gaurko albiste honek zera izan nahi du, elkarte berri baten jaiotzaren adierazpena eta ondorio aberatsak ekar ditzakeen talde baten asmoen agerpena.

Antxon IBARGUREN

Literatur Sariak

«Toribio Altzaga» antzerki saria, 1974

Bizkaiko Aurrezki Kutxaren saria, Euskaltzaindiak eratu. Hona hemen sariketaren oinharriak:

1. Lanak euskaraz egina izan behar du, Euskaltzaindiak Arantzazuko bileran erabaki zuenaren arabera.

2. Egileak bere kabuz egindako lana. Ez da ontzat hartzen ez itzulpenik eta ez bestetatik egindako antolamenik.

3. Lanaren neurria libre uzten da, alde batetik makinaz idatzia, lerroune bat zuri utzirik, folio edo DIN A-4 paper neurrian.

4. Sari bakarra, Bizkaiko Aurrezki Kutxak jarritako 50.000 pezetatakoa, zati ezina.

5. Saria eman gabe geldi daiteke, epai mahaikoei hala iruditzen bazaie.

6. Lanak argitara gabea izan behar du, eta hiru kopia bidali behar dira Euskaltzaindiaren etxera (Academia de la Lengua Vasca, Ribera, 6. Bilbao-5) 1974.eko uztailaren 22rako. Lema batez izenpetua, eta lemaren giltza estalia, egilearen izen-deiturekin.

7. Epai mahaia Euskaltzaindiak izendatuko du.

8. Saria, urriaren 31n, Aurrezki Kutxan egunean emango da, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren etxean egingo den jaialdian.

9. Arau hauk interpretatzean sor litezkeen arazo guztiak, Euskaltzaindiak izendatuko duen epai mahaia erabakiko ditu. Eta erabakiaren kontra ez dago inora joaterik.

«Xenpelar» saria, 1974

1974.eko «Xenpelar» saria, Donostiako **Centro de Atracción y Turismo** delakoaren laguntzarekin eta Euskaltzaindiaren ardurapean antolatu da, oinharri edo lege hauekin:

1. Hiru sari izango dira hiru bertso sail hoberenentzako: lehenari, 12.000 pezeta; bigarrenari, 8.000 pezeta; hirugarrenari, 5.000 pezeta.

2. Bertso sailak, argitaratuak izango dira. Berdin da, bertso paperetan, egunerokoetan, asterokoetan, hilabeterokoetan edo beste edozein aldizkaritan argitaratuak izatea.

4. Argitaratzeko epea: 1973.eko abuztuaren 15etik 1974.eko abuztuaren 15erarte.

5. Egileak bost ale bidaliko ditu helbide honetara: Academia de la Lengua Vasca, Ribera, 6. Bilbao-5.

6. Bidaltzeko epea: 1974.eko abuztuaren 31rarte.

7. Bertso saila noiz eta non argitaratu den, paperetan saihestu batean idatziko da.

8. Egileak, nahi dituen bertso sail guztiak bidal ditzake.

9. Epaiak, Euskaltzaindiak aukeratuak izango dira.

10. Sariak Donostiako Euskal Festetan banatuko dira.



Atera da

3. EUSKALDUNTZEN

Liburu hau, lehen eta bigarren EUSKALDUNTZEN ikasi dutenentzat edo oinharritzko alfabetatze bat egin nahi dutenentzat egina duzu.

Lehen eta bigarren liburuak **kaxeteetan** jarriak dituzu, etxean nahiz egokien datorkizun beste edozein tokitan zeure hizkuntza ikas ahal dezazun.

Kaxete hauk, mintzo ozen eta garbiz, euskaldun jatorrek grabatuak dituzu. Hirugarren liburukoak oraino ez dira eginak, baina laster ukanen dituzu.

Eska zuzenbide honetara:

EUSKALDUNTZEN (Euskaltzaindia)

Ribera, 6

BILBAO-5

ANAITASUNA
BIZKAIA

HAMABOSTEROKOA

JABEA:

San Frantziskoren Hirugarren Ordenako Biltzarre Nagusia.
Batzarburu: Miguel Zapata (Goya, 25. Madrid-1)

ZUZENDARIA:

Joseba Intxausti, O.F.M.

HELBIDEA:

Bulegoa: Pelota, 4-1.º Bilbao-5

Posta kaxa: 495

INPRIMATZAILE:

Imprenta AMADO - Mazarredo, 35. Bilbao-10

© L.: BI-1 753 1967

Italiatik zenbait berri

APEZPIKUEN IV. SINODUA ERROMAN

Urte honen irailaren* 27an hasiko da Erroman Apezpikuen IV. Sinodua. Aurrekoak 1967.ean, 1969.ean eta 1971.ean izan ziren. Sinodu hauetan Konferentzia Episkopalen ordezkariak biltzen dira mundu guztitik, Vatikanoko Kongregazioen buruekin batera.

Aurtengoaren gaia hauxe izanen da: "Gaurko munduaren ebanjelizazioa". Apezpikuen Konferentziek gai hau aztertua dute, bakoitzak bere lurraldeari begira; eta txostenak* Erromara bidaliak dituzte.

ETXEGABEEK ELIZAK HARTZEN BEREN ETXETZAT

Erroma inguruan txabola (*baracca*) asko dago. Eta jende asko bizi da haietan, ordaintzeko moduko etxe baten zain. Azken aldian, ordea, etxegintzak atzera jo du. Eta orduan txaboletakoek, beren txabolak utzirik, Erroman hutsik dauden etxe dotoreak* hartu dituzte. Poliziak izan du lanik, haietatik botatzen; baina azkenik denak bota ditu.

Ez dira, ordea, beren txaboletara itzuli. Erromako zenbait eliza okupatu dituzte: S. Polikarpo, S. Joan Bosco, S. Pauloren Basilika handia. Azken honetan ba zeuden bostehun bat lagun. Hantxe jarri dute beren bizilekua, Basilikako txokoak, aitortegiak,* klaustroa eta abar beren etxetzat hartuz. Italiako poliziak ez daduka horra sartzetik, Vatikanoko Estatuaren lurra baita. Erromako Bikari* den Polletti Kardinalearekin hitz egitera bidali dute batzorde* bat, eta hauxe eskatu: Eliz institutuak beren lurraldeetatik utzi ditzatela batzuk,* etxe merkeak jasotzeko, langileek berek, hartzen dituzten alokairuez* errentak ordaintzeko modukoak.

ITALIA GOBERNU "BERRIAREN" BILA

Albiste hau argitaratu orduko, berriz ere eratua izango da Italian gobernu "zahar-berria". Izan ere, erori* den erdi-ekertiar gobernuak eratu nahi dute berriro. Kristau Demokraziak, Partidu Sozialistak, Partidu zozial Demokratik eta Partidu Errepublikanoak osatuko lukete.

Bai gobernuak eta bai kontrakoak aitortzen dute, azken gerlatik* ukan* duen krisirik biziena eta latzena jasaten* ari dela Italia. Izan ere, ez da krisi politikoa bakarrik; krisi ekonomikoa dago oinharrian. Gerlatik hona Italiako lira ez da orain bezain behean egon, beste diruen aurrean. Aurreko gobernuak eror erazi zuen azken gertaera, zera izan zen: La Malfa, Haziendako Ministrua, gobernutik irten egin zen, Nazioarteko Diru Kutzak Italiari 10.000.000 milioi lira prestatzean jarri zizkion baldintzen* hauzian, Giolitti ministruarekin bat ez zetorrelako.

DIBORTZIO LEGEAREKIKO REFERENDUMA

Dibortzioa onhartzen zuen legea, 1970.eko abenduan onartu zuen Parlamentuak. Lege horrek iraun behar duen ala ez erabakitzeko referenduma egingo da orain. Referendum honetan 37 milioitik gora lagunek hartuko dute parte: hau da, 21 urtez gorakoek.

Hau dela eta, apezpikuek, ageri* baten bidez, katoliko guztiei gogorarazten zieten, ezkontza hautsezina dela. Hala ere, referenduari buruz ez zuten inor legearen kontra behartzen. Baina legearen sortzaile nagusiak, Loris Fortuna jaunak, salatu egin ditu apezpikuek, ageri hura* ematean, konkordatuak hautsi dutela eta. "Konkordatuak —esan du Fortunak— ez die apezpei eta apezpikuei Estatuaren politikan nahasten uzten. Edo errespetatu egiten da konkordatuak, edo bestela ezeztatu egin behar da, besteak betetzen ez duelako".

M. PAGOLA

daude, dagoz
die, deutse
ditzatela, daiezala
zeuden, egozan
zieten, eutseen
zizkion, eutsozan

Hiztegi hauzietan, horrelako ugaritasuna ez da maiz asko aberastasuna baizik: agitu-ri, esate baterako, ez dio kalterik egiten aldamenean gertatu nahiz jazo edukitzeak, ez eta erori-ri ere jausi-ren hurbiltasunak.


Euskaltzaindiak ez du, euskalkiak eta euskalkietako —batez ere euskalki landuetako— aditza saihesteko eta suntsitzeko asmorik. Nola arbuia dezake Euskaltzaindiak euskaldunena den gauzarik? Euskalkiek badute gure artean, onenean edo gaitzenez ere, luzaroko bitzikirik, ahoz eta izkribuz.

MITXELENA

GALERIA DEL LIBRO

José Angel de Zaballa

Liburudenda
Euskal liburuak



EUSKAL LIBURU AZOKA

EUSKARAZ EGITEN DA

Ercilla, 35 - Tel. 43 83 99 - B I L B O - 1 1

LARRESORO

EUSKARA BATUA

ZERTAN DEN

JAKIN



Zertarako da liburu hau?

- Euskararen batasuna egiteko: horrexetarako da **gaurko** liburu berri hau. Izan ere, bertan jasotzen dira hizkuntzaren batasunerako orain arte Euskaltzaindiak emandako arau eta erregelak.
- Euskaltzaindiaren gidaritzapean bakarrik egin ahal izango da batasun hori: Elkargo horren lana jasotzen da liburu honetan.
- 1968.ean hasirik, bide luzea egin du batasunak; baina lanak sakabanaturik zeuden, eta liburu honetan guztiok batera ematen dira.

Zer ematen du liburuak?

- Lehenik, batasunaren historia labur bat dator, eta ondoren Mitxelenak Arantzazuko Bilerari aurkeztatu zion txostena.
- Baina txosten horretako puntuei buruz erabaki asko hartu ditu Euskaltzaindiak, eta hauk ere jasotzen dira puntuz puntu ordenatuta: ezkerreko horrialdeetan Mitxelenarena, eta eskuinekoan —parez pare eta puntuz puntu— geroztik hartutako erabakiak.
- Deklinabide batua dator, laburki, kolore guztietan emana.
- Liburuaren berritasunik jakingarriena **aditz batua** da, edizio ofizialaren ondoren, hemen agertzen baita lehenbadizikoz, gramatika erara emanik.
- Aditz batuaren ikaslana erraztu nahirik, lau koloretan eman da.
- Eranskin bezala datoz, askotan beharko ditugun pertsona izenak eta herri izenak (azken zerrenda hau oraindik ofizialki onhartu gabea), eta batasunaren hiztegia.

Salneurriak

250 pezeta liburudendetan.
% 10 pezeta merkeago ANAITASUNAREN abonatuentzat.

Eskabideak

JAKIN, Aránzazu, Oñate, Guip. Tel. 781172.
JAKIN, Cuartel, 2. Tolosa, Guip. Tel. 651106.

Izena

Kalea Tel.

Herria Probintzia

Arrantzako kontraesanak

Arrantzaz ez gara sekula mintzatu, gai hori osoki hartzea eta aztertzea ez baita txantxetako gauza.

Arrantzale soil batekin izan ginen oraingo kinkaz* hitz egiten, eta hark eman zizkigun eritziak, interesgariak direlakoan, azaltzera goaz.

Nahiz eta aldizkariak honetaz ez duten ezer esaten, ba dago istilu* bat arrantzale eta untzijabeen artean, untzirik itsasoratzen ez delako.

Arrantzaleek ez dute soldata seinalaturik. Arrantzan harrapatzen dutenetik, erdia untzijabeentzat da eta beste erdia arrantzaleentzat, hots,* arrantzako fruitutik erdia kapitalarentzat eta bese erdia lanarentzat.

Urtean zehar, sasoin batzuetan arrain asko egoten da, beste batzuetan, oster,* oso gutti. Arrain gutti dagoenean, arrantzaleak ez du interesik itsasora joateko, lehorrean orduka gehiago irabazten baitu; baina, untzijabeen eraginez,* itsasora joan behar izaten du. Hauxe gertatu da urtarril* eta otsailean;* baina datozen hilabeteak oso onak dira arrantzarako.

Untzijabeek, gasoilaren iganaldia ikusirik, grebaz* jokutzen dute horren kontra. Baina arrantzaleek ez dute zerikusirik gasoilaz; eta beldur dira, beren urteko diru sartze garrantzitsuenetako bat, ugazaben greba horregatik, ez ote zaien pikotara* joango.

Honelako kontraesanak, bai arrantzan eta bai industrian, ugari izango ditugu, lana eta kapitala jartzen dutenen artean bereizketa bat duguino.*

ARATZ

zaie, **jake**
zizkigun, **euskuzan**

Aspaldidanik, zenbaitek, gero eta gehiagok, nahi du gurean euskalkien bereizkuntzen gainetik eta urrutiago legokeen hizkera bat: nahi du eta behar du. Zatitua eta berezia dagoen etxeak ez omen du iraungo; ez eta ere, dirudienez, bihotz-erraietako etendurak eta ezberdintasunak gaintzeko gauza ez den hizkuntzak. Eta gauza ez bada, ez dadila behintzat izan, guk, euskaldunok, beharrezko uste genituen eginahalak egin ez ditugulako, egin behar genituen orduan.

MITXELENA



MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriak, Itxas tresnak, Igeritekoak, Uretako Jantziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI
Muelle de Uribitarte, 15 BILBO - 1

Neure lantokitik

ADISKIDE GARESTIEGIAK

Bilboko egunkarietan irakurri dugunez, arabeak adiskide garestiegiak dira espainolentzat, Espainia baita Europako Estatuaren artean petrolio garestienik ordaintzen duena.

Honek esplikazio bat du: Espainiak bakarrean negoziatu duela arabeekin, eta beste europarrek elkaturik.

Batasunak berriro frogatu* digu bere balioa.

EUROPAR HEZKUNTZA

Merkatu Komuneko buruzagiek, 1972.eko uztailen,* Henri Janne jaunari ezarri zioten, europar hezkuntzaren* plangintza egiteko zeregina.

Hainbat pertsona eta erakunde* kontsultatu ondoren, Janne jaunak plangintza horren oinharriak presentatu ditu:

1. Historiazko testu liburuak aldatu egin behar lirateke, abertzaletasun gehiegikeriak eta gorroto iturriak baztertuz.

2. Historiazko liburuotan, gertakarien bilduma* hutsa bihur ez daitezen, beste gauza asko ere aztertu behar lirateke historiaren ikuspuntutik, bereziki ideologi korrante haundiak, zientziak, teknologia, lana, filosofia, erligioa, kultura, politika eta literatura.

3. Geografia, muga nazionalen gainditzea* lortzeko asmoz irakatsi behar litzateke.

4. Linguistika arloan, Europako hizkuntzek dituzten egitura* komunak batez ere azaldu behar lirateke.

5. Irakats bedi europar gizabidea,* pluralismoan eta demokrazian oinharriturik.

6. Beharbada, Europa osorako material pedagogikoa prestatuko lukeen erakunde bat sortzea komeni litzateke.

SALVADOR DE MADARIAGA

Jaun honek noizean behin gauza bakanak* esaten ditu, Dali pintatzailearen antzera bere burua nabarmentzeko edo.

Madariaga jauna, euskal deitura eraman arren, ez da euskalduna eta ez da euskaldunon adiskide bezala agertzen; eta guk era berean ordaintzen diogu, bidezko den legez.*

«ALDERDI» ALDIZKARIA

«Alderdi» aldizkariak «Ukronia» ipuinari buruz idatzi omen du. Idatzi duena nik irakurri ez badut ere, uste dut, ipuin famatu hari akatsik franko aurkitu diokeela.* Baina, esan didatenez, gauza zuzenak ere ikusi ditu Kintanaren lan hartan; eta aitormen honek biziki ohoratzen du aldizkari hura,* jakituriaren iturria apaltasuna baita eta helburua lortzeko biderik egokiena nork bere hutsak ezagutzea.

JUBILATUAK

Bilbo ondoko Zorrotzan, 80 urtetako gizon ezkondu bat bizi da, «Echevarria» fabrikako langile ohia.* Gaixorik dago, ez du ondo ikusten, lausoturik baititu begiak.

Beretzat eta bere emaztearentzat duen hilabeteroko pensioa, 2.000 pezetatakoa da, besterik ez. Eskerrak, lau seme dituztela eta haien laguntzaz bizi ahal direla.

Zein triste den, aberats ez diren zaharren zortea!

NEUK IKUSIA

Hirurogei bat urtetako enplegatu batek, bulegoko* lana amaitzera zihoala, mahai gainean dituen paperak batzen ditu, eta kalera joateko gertatzen ari da. Nagusiak (ez ugazabak*) garrakzi begiratzen dio, eta ba diotsu modu txarrean: «Hiru minutu falta dira».

Enplegatuak, bere senetik* irtenda, honela erauntzuzion: «Lacayo de la burguesía!» Ez noski, haren aurrean zegoela, alde egin zuenean baizik. Niri barregura etorri zitzaidan. Baina, astiro pentsatuz, esaldi horrek ba du mamirik. «Lacayo», guztiok dakizue zer den; eta «burgues», Arestik diosku bere «Hiztegi Tipia»n: «Oraingo klase sozialetatik gorrena, zeinaren* eskuetan baitago ondasun publikoen jabetza pribatua».

ALGORTAKO IKASTOLAREN ALDE

Algortako Gran Cinema-n, jaialdi ederra eskaini ziguten Lasarteko ikastolakoek. Aretoa* bete egin zen, eta orduter-

diz berrogei bat mutiko eta neskatok liluratu* egin gintuzten beren kantu, dantza eta musika tresnekin. Oso egoki mutiko bertsolari bi haik,* hori baita bertso zaletasuna sortzeko biderik onena. Akatsak bilatzekotan, ene ustez, ekintza barregarile gehiago egin behar lukete, eta parte gehiago eskaini ikusleei, hauk* ere jaialdiaren barnean sar daitezten.

EUSKARAREN BALIOA

Gaur goizean boltsako agente baten bulegora* joan behar ukan* dut, eta, han nengoela, adineko* bikote bat sartu da. Enplegatu bat hurbildu zaie, eta haiek euskaraz egin diote. Enplegatuak modu txarrean erantzun die, berak ez zekiela euskaraz eta ez zuela ikasteko gogorik ere. «Mejor aprender chino, pues el vascuence no sirve para nada», haren hitzak. Bikoteak nagusia etortzeko eskatu du, eta berau etorri denean, euskaldun enplegatu batekin berba egin nahi zuela esan dio. Neska bat etorri da, eta 1.700.000 pezetatako operazio bat burutu dute, euskaraz.

Neure lantokira itzulirik, gertakari honek zuei kontatzea merezi duela pentsatu dut, bertan puntu hau ikusten baitut:

1. Euskarak ez du gaurko bizitzan baliorik. Horrela da egiaz, gure artean bizi diren askorentzat.

2. Boltsako agente harentzat, ordea, euskarak gaur balio bat eduki du, bere enplegatu euskaldunaren bidez 42.000 pezetatako komisioa lortu baitu.

3. Erdaraz idazten duten euskaldunentzat, euskarak ez omen du balio handirik (oraintsu argitaratu da, euskararen batasunari jazartzen* zaion liburu bat).

Ondorio bezala: euskarak ba du baliorik, guk euskaldunok euskaraz hitz egiten eta idazten dugunean. Beraz, ez da hizkuntzaren errua,* gurea baizik, euskarak gaur indar gehiagorik ez badu.

EUSKAL GRAMATIKA

JAKIN editoriala hasi da zabaltzen, Larresorok idatzi duen «Euskara Batua» gramatika liburua. Oso interesgarria eta beharrezkoa euskaldunontzat, batez ere aditz laguntzaile batua ondo ezagutzeko. Ezagutza hau nekerik gabe erdiets* daiteke, aditza hain ondo baitago presentatua.

KARL MARXEN LIBURU BAT

Lan hau amaitzera noala, LUR editorialak argitaraturiko liburu bat ekartzen dit postariak:* «Louis Bonaparteren 'Brumaire'aren hamazortzia», Mario Onaindiak euskaratua.

Oso interesgarria deritzat editorial horren lanari, alde batetik euskal idazleen lanak eta bestetik munduko idazle eta pentsalari famatuenen itzulpenak argitaratzen baititu.

XABIER PEÑARI OMENALDIA

Hogeitabost urtetan haren ikasle izan direnek, omenaldi bat eskainiko diote Xabier Peñari, apirilaren 28an.

Peña jaunak orain betetzen ditu 25 urte, Bilbon euskara irakasten diharduela; eta urte hauetan ehundaka dira, gazte eta adineko,* harekin euskara ikasi dutenak.

EUSKAL IZENAK

Zorionez euskal izenak modan daude. Joan den astean, Algortako parrokia batetan, hamaika umetarik hamarreri ipini diete euskal izena. Gurasoek euskal izenarekin euskaldun izana ere ematen badiete, Algorta euskaldun bihurtuko zaigu laster.

Xabier GEREÑO

didate, **deuste**
die, **deutse**
diete, **deutsee**
digu, **deusku**
dio, **deutso**
diogu, **deutsagu**
diote, **deutsoe**

dit, **deust**
zaie, **jake**
zaigu, **jaku**
ziguten, **euskuen**
zion, **eutson**
zioten, **eutsoen**
zitzaidan, **jatan**

Gure Munduko Albisteak

Celaren dimisioa

Camilo José Cela espainol idazle ezagunak bere dimisioa presentatu berri du Madrileko Atheneotik, heriotzeko kondena ez zaizkiola inoiz gustatu esanez.

Dakikegunez, C. J. Cela Atheneoko buru izendatu izana zen oraintsu, eta Espainiako hiriburuko kultur erakunde horretan katalan, galego eta euskarazko katedra bana jarriak zituen.

Pompidou hil da

Monsieur Georges Pompidou, frantses Errepublikako presidentea hil berri zaigu apirilaren 2an, luzaro haren osasun txarraz zurrumuru asko ibili ondoren. Goian bego!

Heriotze honekin, gaullismoak bere buruzagi famatuenetako bat galdu du, eta zulo haundi bat utzi, agian François Mitterrand sozialistaren faboretan.

Portugaldarrak, koloniak eta Espainia

Spínola jeneralaren liburua, **Portugal e o futuro** (= Portugal eta etorkizuna), izan da Portugaldar gobernuari aspaldi honetako iharroskadarik haundienetako bat egin diona.

Liburu honetan esaten denez, Mozambique, Angola eta osterantzeko portugaldar kolonietako gerra ezin konpon daiteke militar bidetik. Gerrillak erabat birrintzerik ez dago. Horregatik, Portugal gelditzen zaiokoen bide bakarra hauxe dateke: bere koloniei autodeterminazioa eskain, gero metropoliarekin federazio gisako lotura bat lortzeko. Bestela ez duke deus onik lortuko, eta bai, segur aski, den dena galduko, oraino gelditzen omen zaien nolabaiteko ohore hori ere barrenean sarturik. Gu, egia esan, beldur gara ez ote den honez gero beranduegi konponketa horietarako. Wiryamuko gertatuak gertatu ondoren. Dena dela, Caetano jaunak, Portugaldar gobernuaren izenean, erabat kondenatu du Spínola jeneralaren proposamendua, hari bere kargu militarra kenduz.



«Koloniarik gabe —esan du Spínolak— aukera bakar hau genuke: pobretasuna ala Espainiaren zurrupatuak izatea. Espainiaren lotura sakonago batek —segitzen du esaten Spínolak— are ahulago egingen gintuzke, demographia eta merkatal gorabeherak beti espainolen alde baileudeke». Franco Nogueira jaunak, atzerritar arazoetarako portugaldar ministruak, bere aldetik areago esan du: «Portugalek aspaldiko etsai bat du bere bizkarrean, edozein atxakiaz inbasio bat egiteko prest dagoena». Espainia, hategia.

Portugal, XVII. mendean, Katalunia edo eta Euskal Herria bezalako loturekin loturik zegoen Gaztelako erresumarekin, baina 1640. urtean —Spínolak dioenez— gaztelauen uztarririk askatu zen, bere etorkizuna libreki erabakitzeko. Orduetik hona Kataluniak eta Euskal Herriak espainiar Estatu barruan lortu duten egoera zoriontsuaren aurrean ez dakusagu zergatik portugaldarrak Madrilez mesfidatzen diren. Ez baitago horretarako arrazoirik, halafede!

Estatu Batuetako euskaldunak lanean

Nevadako Unibertsitateko Newsletter (= berrigutuna) deritzon aldizkaritxo bat bidali digute ingelesez, Estatu Batuetako euskaldunen kultur albisteak dakarzikiguna.

Aldizkarion, Unibertsitateko ikasle-irakasleek euskal kulturari buruz egindako lanak azaltzen dira, euskara ikasteko ikastaroak, euskal kulturazko liburu erosi eta bildu berriak, eta William A. Douglass eta Jon Bilbaoren **The Basques in the New World** (= Euskaldunak Mundu Berrian) izeneko liburuaren aipamen interesgarria.

Troncoso jaunaren deklarazioak

Martxoaren 10ean **La Voz de Galicia** egunkarian Educación y Ciencia-ko ordezkari probintzialak, Troncoso de Castro jaunak, Burgosen ETAko euskaldun terroristen kontra egindako judizioetan maiz militar legegizon bezala parte hartuak, «Pedagogi Astea»-ren bukaeran, beste zenbait gauzaren artean, hauk deklaratu zituen: «...Espainian dauden 145.000 unibertsitarietatik, 25.000k ez bestek egiten dute beren kurtsua garbiki [politikan nahasi gabe, hategia]; honek erakusten du, beste guztiak zaborra (= murralla) besterik ez direla, guri balio ez digutenak».

Euskal Herriari dagokionez, Troncoso jaunak, modu oso ekilibratu batez, euskaldunekin gabe, diskriminazioa extremeño, andaluz, gaztelau, leondar eta galegoen artean obratzen dela salatu zuen irmoki, kanpotik etorritako guztiari «chacurras» (txakurrak) izena ematen zaiela aipatuz. Bataiatzeko orduan ere, antzeko apartheid batez tratatuak omen dira.

Parrokietako ikastoletan dauden 20.000 haurrei, Euskal Herriaren hegoaldeko muga Espainia dela erakusten dietela esan zuen Troncoso jaunak, bai eta, zeruratu nahi badute, espainolei gorroto ukan behar dietela ere.

Guk, egia esan, Euskal Herriaren jaiok eta betidanik hemen bizi izan bagara ere, ez genekien honen guztionen berri; baina, Troncoso moduko jaun jurista batek dioenean, noski egia dateke, holakoak esateko, jakina, froga bortitzak eduki behar baitituzke. Froga horiekin, gainera, euskal arazo lotsagarri horik, separatismoaren kontrako lehia onez, hauzitegietara eramanez genituzke lehenbailehen, legeak, makurkeria ongi frogatu horik behar bezala gaztiga ditzan.

Azken orduan prentsak esan duenez, ordea, Troncoso de Castro jauna bere kargutik kendua izan da.

Jesuiten bilera Loiolan

Martxoaren 30 eta 31n laurogei jesuita eta jesuitagai inguru bildu ziren Loiolan, Konpainiak euskal kulturari buruz zer erabaki hartu behar duen aztertzeko. Haiekin probintziala eta Konpainiako beste agintari batzuk ere egon ziren. Guztiok euskal kultura (hizkuntza bereziki) beren kolegio-irakastegietan indartzearen aldekoak izan arren, hurrengo bilera batzuetarako utzi zuten erabaki konkretuen hartzea.

Añoberos apezpikuaren artzan gomendio eta helburu euskaltzaleen ondoren, ba dirudi, jesuitak, Aita Sainduari ezeze, apezpikuari ere obeditzeko gertu ditugula. Ea holaxe den beti euskal kulturaren onerako! Gu behintzat zain gaduzkate.

Leioako ikastolari multa bat

«Altzaga» ikastolari Leioako udaletxeak 5.000 pezetako multa bat ipini berri dio, klaseak egiteko erosi, egokitu eta eraberritu duten etxera, baimenik eta paperik gabe, haurrak, arratsalde batez, sartu zituztelako.

Gero esanen dute, gure agintariek ikastolen kontrako amorrurik dutela! Nola ez, gauza hauetan legea behar bezala betetzen ez badugu! Eskerrak eman ditzatela ikastola horretakoek oraindik, 5.000 pezeta gabe, 10.000, 25.000 edo 50.000 pezeta ipini ez dizkietelako, ongi merezirik baitzuketen. Bai horixe!

«France» untziaren heriotzea

«France» gurutzuntzi xelebrea, mundukorik haundiena (315 metro luze, 33 metro zabal, 30 korapilotako abiada eta 2.000 lagunentzako lekua) laster salduko omen da zatikatua izateko, aspaldion errentagarria ez delako.

Frantses xobinistentzat «France» gurutzuntzi luxozko hau beren Nazio haundi eta guztiahaldunen simbolo bat zen: **le «France» c'est la France** zioten, «France» Frantzia bera da, hategia. Kolpe ederra, 1960.eko maiatzaren 11n de Gaulle jeneralaren aurrean itsasoratu zen untzi honentzat. Fin trixtea, benetan, «France»-arena.

Donibaneko Udako Euskal Unibertsitateaz

Martxoaren 28an, Donostiako EUTGen, IKASeko arduradunen zuzendaritzapean, ikasle eta irakasle mordo bat bildu zen, aurtengo

urrian Donibane Lohitzunen egiteko den Euskal Unibertsitatearen programa eratzeko.

Bilera interesgarri horretan, denen eritziak entzun ondoren, mintegi* berezi eta hitzaldi jeneralagoen arteko moldaketa bat egin zen, lehenak espezialitate bakoitzerako, eta bigarrenak jende guztientzat. Tokia, ihazkoa bera izanen da: Maurice Ravel ikastetxea.

Iraqeko kurduen barruka

Martxoaren 11n bukatu zen, BAAS alderdi gobernariak Iraqeko 1.500.000 kurdueri autonomia emateko jarri zuen epea. Gobernuak egindako proposamendua, ordea, ez du Kurduen Alderdi Demokratikoak begi onez ikusi; eta beronen buruzagiak, Mullah Mustafa Barzanik, bere jarraitzaile ugariak berriro ere gonbidatu ditu burruka harmatura.

Gatazkarik* latzena sorterazi duen puntua, Kurdistanen geografiaren mugei dagokiena izan da, Kirkuk hiria, Iraqeko petrolio gehiena ematen duena, kurduak berena dela baitiote. Bagdadeko gobernu arabiarrek, ordea, ez die eskubide hori onhartu nahi.



Autonomi programa horretan, dena den, kurduera eskualde horretako hizkuntza ofiziala litzateke, baina arabezko eskolak ere egotekotan. Bertako gobernu asanblada* eta batzorde* betetzailerik baten bidez eginen litzateke, Bagdadeko arabiar gobernuaren menea* biak. Kurduen Alderdi Demokratikoak proiektu horri, autonomia gabe,* «gobernu lokal» huts bat deritzo, eta askatasun haundiago baten bila abiatu da burrukan.

Kurdistan, kurduen Herria, Turkia, Sobietar Batasuna, Iraq eta Iran artean zatikaturik dago. Hizkuntzaz kurduak indoeuroparrak dira, pertsiarren antzera; eta azken urteotan gogorki burrukatu dute beren nazional batasun eta askatasunaren alde.

Erdal idazleen aldeko laguntza

Bilboko Aurrezki Kutxa Municipalak (Caja de Ahorros Municipal de Bilbao delakoak, hategia) aurten Euskaltzaindiari 50.000 pezeta eman dizkiola esan genuen aurreko zenbaki batetan. Laguntza hau, bestalde, gerra amaitu zenetik hona egin dion lehenbizikoa izan da.

Gaztelaniazko idazleen faboretan, ordea, 500.000 pezetako sari bat jarri digu banku berberak oraintsu. Noski, diru hau banku honetan beren diruak daduzkaten bizkaitarregandik atera da; eta, kontuak kontu, horra non garen geu, erdal literaturari sariak hain oparo* eskaintzen dizkiogunak. Bakoitzak pentsa beza zer egin dezakeen. Izan ere, ez dirudi gaur egun, gurean laguntzarik gehien behar dutenak espainolez idazten duten idazleak direnik. Ala bai?

Josu Arenazaren ama hil da

Donata Lekerikabeaskoa Gabiola, Josu Arenaza mediku eta euskaltzain laguntzailearen ama, apirilaren 3an hil da, 78 urte zituela. Goian bego.

Haren etxeko eta senide guztiei geure doluminak ematen dizkiegu bihotzez.

Azpeitian goardia zibil bat hila

Apirilaren 3an, Azpeitian, Gregorio Posada Zurrón jauna, 33 urtetakoa, herri hartako Informazio Zerbitzu taldeko burua bera, bi ezezagunek hil zuten metraileta tiroz.

Hiltzaileek, dirudienez, handik Vespa batez egin zuten ihes. Polizia haien atzetik dabil.

Iruinea: gizonaren ehiza*

Apirilaren 2an, goizeko 11k aldean, gordetzen zèn etxea ondo inguratu ondoren, tiroketa ikaragarri bat egon zen ETako gazte baten kontra Iruineko kaleetan.

Polizia harmatua eta osterantzeko* agenteak, kaskoz eta tiroen kontrako jantziez horniturik, Jose Luis Iztueta Irisarri (21 urtetakoa) zegoen teiltatura hasi ziren tiroka inguruko etxe eta teiltuetatik, mutirik pistola bat zuen eta. Tiroketa horretan gaztea, antza* denez, zaurtua* izan zen hanka batetan, ondorioz bostgarren pisutik patiora jausiz.* Une honetan Nafarroako Hospitalean dago, egoera oso txar batetan, polizia harmatuek ongi zaindurik.

Liburu berriak

«Louis Bonaparteren 'Brumaire'aren 18a», Karl Marxek, LURen

Mario Onaindiak oso trebeki itzulirik, oraintsu agertu digu LUR edoitorialak Karl Marxen obra klasiko hau, gorabehera politiko berezi batzuetan pertsonaia ezteus* bat boterearen tontorreraino igan* daitekeela ezin hobeki darakuskiguna.*

Bibliografiarako: MARX, Karl: Louis Bonaparteren «Brumaire»-aren hamazortzia, LUR ed., Bilbao (1973).

«Hablando con los vascos», Martín de Ugalde, ARIELen

Behin baino gehiagotan esanak gara, aurtengoa mirarien urtea dukegula.* Añoveros jaun apezpikuaren homiliaren ondoren, euskal akzioak aspaldixean gorantz doazela esanen genuke. Areilza jaunak martxoaren 20ko ABCen egindako deklarazioen arauera* (geroago «Informaciones»en berraipatuak eta laudatuak), euskal problemaren soluzioa, Sáinz poliziburuaren hitzez esateko, ez da polizi bidezkoa, eta nola edo halako autonomia bat eskatzera ausartzen da.

Giro honetan, Cuadernos para el Diálogoen gehigarria egoki etorri zen eta are* egokiago, ene eritzi apaleon, ARIEL editorialak oraintsu eskaini digun beste liburu hau. Martín de Ugalde idazle eta euskaltzain laguntzaileak —Espainiatik, dirudienez, persona non gratatzat jaurtikiak— moldatu du obra irakurgarri hau. Elkar hizketa bidez, batzuk luze xamarrek, zenbait euskal semek (euskaldunek eta baskoek) gaurko euskal problematikari buruz dituzten eritziak eta soluzioak agertzen dira, nork bere ikusmira ezberdinetik, baina guztiak oinharri komun eta zabal batetan finkaturik: Euskal Herriaren izatearen onhartzea eta beronen iraupen naturalaren (ez erdaldunki bestelakatuaren*) nahia.



Eta oinharri honi nahitaezkoa deritzogu, zeren*, honetaz, geure Herriaren nortasuna orain arte systematikoki ukatu diguten vasco horietakoek euskal problemaz deus* gutti baitute esatekorik.

Aita Barandiaran, Ramón de la Sota, Luis Mitxelena, Aita Arrupe, Isidoro Fagoaga eta Agustín Ibarrolak, nork bere erara, ideien panoramika interesgarri bat demaigute,* obra hau, zentsurak asko moztu arren, xit* baliagarri egiten duena. Ez beza, ez, Martín de Ugaldek batere damurik ukan* liburu honen argitaratzeaz. Bere fruituak laster ekarriko ditu; eta segur gaude, mirarien urte honetan, euskal arazoaren dibidendoek eskertu eginen diotela.

Hitz guttitan, guztiz irakurgarri deritzogun liburu bat, geure irakurle guztiei zin zinez* gomendatzen dieguna.

ARMENDARITZ (74-IV-4)

beza, **bei**
dezake, **daike**
die, **deutse**
diete, **deutsee**
digu, **deusku**
digute, **deuskue**
diegu, **deutsegu**
dio, **deutso**
diogu, **deutsagu**
diote, **deutsoe**
ditzan, **daizan**

ditzatela **daiezala**
dizkiegu, **deutseez**
dizkiete, **deutseez**
dizkio, **deutsoz**
dizkiogu, **deutsaguz**
gaduzkate (gauzkate), **gaukez**
leudeke, **legokez**
zaie, **jake**
zaigu, **jaku**
zaio, **jako**
zaizkio, **jakoz**

Kristauak Sozialismo Bidetik

Ba da denbora, militarrek Allende bota zutela eta be-
raiek agintea hartu. Sozialismoaren bide berri bat etenda
gelditu zen, eta Hego Amerikaren arnasa berri bat eta
askoren itxaropen haundi bat itota. Hala ere, Chileko es-
periantziaren argitan sortu zèn mugimendu bat ez da ito
munduan, eta bai pizkortu eta indartu: hau da, «Cristia-
nos para el Socialismo» edo **Kristauak Sozialismo Bide-
tik** mugimendua.

1971.eko apirilaren 16an, langileen artean bizi eta lan
egiten duten 80 apezek ageri* bat zabaltzen dute («Lau-
rogeien Ageria» deituko dena), sozialismoa eraikitze-
ko kristauak duten egitekoaz. Eta berehala sortzen da «Cris-
tianos para el Socialismo» izeneko idazkaritza.* Zabalta-
sun handiagoa hartzen du mugimenduak, laikoak ere bar-
nera bilduz.

1972.ean indartzen eta zabaltzen da bereziki mug-
imendu hau. Izan ere, sortuz geroztik urtebetera, Hego
Amerikako beste berdin antzeko mugimendu batzuekin
batera, Santiago de Chilen antolatzen da «Kristauak So-
zialismo Bidetik» mugimenduaren nazioarteko bilera,
1972.eko apirilaren 23an. Lau mugimendu hauk* dira ba-
tez ere antolatzaileak: Chileko «Cristianos para el So-
cialismo», Peruko ONIS (Organización Nacional: Iglesia
y Sociedad), Argentinako «Sacerdotes para el Tercer
Mundo», Hego Amerikako ISAL (Iglesia y Sociedad en
América Latina). Brasilgoak ezik, Hego Amerikako beste
nazio guztietako ordezkariak bildu ziren Santiagon. Ba-
tzarkideen artean zegoen Mexikoko Sergio Méndez Ar-
ceo, Cuernavacako apezpikua ere. 400dik gora izan ziren
bilduak; horietarik % 64 apez. Bileran parte hartu zuen
Québec-eko talde batek ere.

Kristautasunaren eta sozialismoaren arteko kideta-
suna eta harremanak aztertzeke izan zen bilera hau. Chi-
leko 80 apezek beren agerian honela zioten: «Kristau ga-
renez, ez dugu kristautasunaren eta sozialismoaren ar-
tean etenik ikusten. Aitzitik,* Santiagoko Kardinaleak
zioen bezala, sozialismoan, kapitalismoan baino ebanje-
liozko balio gehiago dago». Honela, bada, Santiagoko bi-
lera teologiazko azterketa bat egiteko izango da: ez, or-
dea, azterketa abstraktu bat, praksi edo ekintzatik abia-
tuko den teologiazko azterketa bat baizik. Honela, kris-
tau bizitzaren eta kristau teologiaren ideologizatzea sa-
latu nahi da azterketa horren bidez.

«Kristauak Sozialismo Bidetik» mugimenduak Ameri-
katik kanpora ere indarra hartzen du. Eta, hurrengo ur-
tean, lehenbizi Espainiako Avilan ixilpeko bilera bat izan-
nen da. Bileran honen berri haundirik ez da zabaltzen; bai-
na garrantzi handia ukan* du, Chileko bileraren eta Bo-
loniakoaren arteko zubi bezala.

Izan ere, 1973.eko irailaren* 21ean, Santiagoko izen
berberaz, «Kristauak Sozialismoaren Bidetik» mugim-
enduaren hirugarren bilera egiten da Bolonian. Bi mila la-
gun inguru bildu ziren, hiru egunetako azterketa egiteko,
Italiako egoerari begira batez ere. Sarrerako hitzaldia
Giulio Girardik egin zuen. Bileran honen helburuak hau-
xek ziren: sozialista eta benetako elizkide izan daitekee-
la baieztatzea; politika aldetik delako mundu katoliko ba-
karra ez dagoela erakustea.

Bigarren helburu honek garrantzi handia du Italian,
mundu katolikoa eta Kristau Demokrazia oraindik ere

bata besteagandik bereizi ezinik bizi baitira, edo eta el-
karri lotuta iraun nahian baitabilta. Boloniako bileran
Italiako kristau talde berri guztiek hartzen dute parte.
Elizari buruz eta politikari buruz beren joera desberdinak
badituzte ere, guztiak bat datoz, Kristau Demokraziaren
eta Elizaren arteko loturen eten beharra aitortzean eta
kristau bezala sozialismoaren bidetik jo nahian.

Boloniakoaren ondoren ez da mugimenduaren beste
bilerarik gertatu. Chileko sozialismo bidea ere eten ote
da? Ez dirudi, bide honen oinharriak ez baitaude herri ba-
teko politikazko esperientzian, Ebanjelioan bertan eta
kristau bizikera eta ikuskeran baizik.

SOZIALISMOA ETA KRISTAU FEDEA

Honela definitzen zuen G. Girardik sozialismoa: «So-
zialismoak gizarte kapitalistaren eraberritze orokorra*
nahi du, bai haren egituretan* eta bai haren kulturari. Era-
berritze hori klaseen arteko burrukaren bidez egiten da.
Sozialismoak, maila guztietan gizonen arteko nagusike-
ria eta elkar azpiratzeko nahia desegin gura du, herria
bere historiaren egile izango den gizarte bat sortzeko».
Sozialismoa ez da, beraz, kapitalismoa gizatiarragotuz,*
haren osagarri bezala datorren zerbait, kapitalismoaren
ordez gertzen den zerbait berri baizik.

Elizaren sozial dotrinak irakatsi duen klaseartekota-
suna ukatu egiten du sozialismo honek, klase baten hau-
tapena* egiteko. Bestalde, sozialismoa ez da, kapitalis-
moari ekonomi aldetik bakarrik jartzen zaion ordezeko bat.
Ordezkotasun hori politika eta kultur arlori ere heda-
tzen* da. Honela, gizarte berri bat, gizarte sozialista bat
bideratzeko eta lortzeko, bere kontribuzioa eman nahi du
kristauak.

Gonzalo Arroyok, Santiagoko bileraren antolotzaileen
buruak, Silva Enríquez Kardinaleari bilerarako deia bidali
zionean, honek ezezkua eman zuen, bilera hura* mar-
xistatzat joz,* eta, prestaturiko txostenetan* agertzen
zenez, azken azkenik kristautasuna ukatu egiten zela
salatuz.

Antolatzaileek, Kardinaleari emandako erantzunean
honela zioten: Bilerak ez lukeela zentzurik, kristautasuna
ukatzekeotan. Historiarekiko materialismoa, historia hori
interpretatzeko zientziatzko metodo bat dela, eta ez da-
goela ez Jainkoa ez izpiritua ukatu beharrik. Azken aska-
pena Kristogan dela aitortzen dute; baina horrek ez du
esan nahi, gizarteko eta ekonomiazko askapena bilatzeko,
aztergailu eta langailu gizatiarrak* erabili behar ez dire-
nik.

Kristau izanik sozialista izan daitekeela, eta sozialis-
ta izanik kristau izan daitekeela baieztatu nahi dute.
Areago,* sozialismoaren eta Ebanjelioaren artean kideta-
sun berezi bat somatzen dute. Eta kidetasun hauxe sa-
kondu eta argitu nahi dute, hain zuzen ere.

Hala ere, ez dute beste Eliza bat sortu nahi, ez eta
partidu berri bat. Ez dago kristau sozialismorik. Baina
sozialismoak metodoa eta bidea ematen dio kristauari.
historiaren eta gizartearen azterketa egiteko. Horregatik,
beren kristautasunetik abiatuta, sozialismora jotzen du-
tenek, hainbeste partidutan egin dezakete beren politi-

kazko aukera. Ez dituzte, derrigorrez, beren sozialismoa-
rekiko aukera eta beren kristau fedea elkarrekin lotu na-
hi: fedea ez da sozialista, ez eta sozialismoarekiko auke-
raren justifikazioa ere. Ez dute, beraz, integrismo ezker-
tiar batetara erori nahi.

Baina ez dira banandu behar fedea eta politika. So-
zialismoaren hautapenetik kanpora ez du jarri behar inork
bere kristau fedea; aitzitik, hautapen horretatik bertatik,
klase hautapenetik alegia,* berrinterpretatu eta bizi be-
har du nork bere kristau fedea. Fede hau ez da, ez, so-
zialista; baina berez eskatzen du, gizonen arteko zapalke-
taren kateak puskatzeko eginahal etengabea, honela
mundu berri bat sortzeko. Beraz, beren fedean aurkitzen
dute kristau askok sozialismo bidetik jotzeko indarra.
Kristau fedetik sozialismora derrigorrezko biderik ez ba-
dago ere, ba da bien arteko kidesun bat. Ez da, ordea,
kristau fede «abstraktu» baten bidez sozialismoa epaitu
behar, fede hori ideologia bihurtuz, hau da, norberaren
politikazko hautapen eta ekintzatik kanpo dagoen zerbait
bezala fedea hartuz. Fedeak ba du, edozein politikazko
aukera eta ekintzari kritika egiteko indarra (eta hauxe li-
tzateke, sozialismoari kristauak eskain liezaiokeen apor-
taziorik nagusiena); baina fede horren bizitasun eta in-
darra bera politikazko ekintzan agertzen eta mamitzen
da.

«KRISTAUAK SOZIALISMO BIDETIK» ETA GAURKO ELIZA

G. Girardik, Boloniako bileran egindako hitzaldian, ar-
gi esan zuen: «Ez dugu Eliza berri bat sortu nahi». Hala
ere, gaurko Eliza «ofizialaren» barnean, bestelako* auke-
ra bat gertatzen* da mugimendu hau; hain zuzen ere, ho-
rixen izan nahi du: Elizaren barnean bestelako aukera bat.



Giulio Girardi

Chilen, Kardinaleak, erantzun gogortoa eman arren,
ez zuen bilera kondenatu; eta harremanak bigundu eta
leundu ere egin ziren geroztik. Bilera hartan bertan parte
hartu zuen apezpiku batek. Boloniako bilerari buruz ez
da agertu Italiako apezpikuen eritzirik. Honek guztionez
ez du esan nahi, mugimendu hau Elizarekin polemikan
ez dagoenik.

Lehen lehenik, Elizaren dotrina sozial delako hori
ukatu egiten dute. Kapitalismoaren eta sozialismoaren

artean beste indar sozial eta politiko bat sortu nahi izan
du Elizak. Horretarako, klaseartekotasuna eta klaseen ar-
teko bakea predikatu du. Baina azkenik kapitalisten es-
kuetara jausteko.* Horrexegatik, «Kristauak Sozialismo
Bidetik» mugimenduak klaseartekotasun hori ukatu egi-
ten du, eta kapitalismoaren kontrako aukera bakarra be-
zala sozialismoa aukeratu. Mugimendu honek ez du hiru-
garren indar bat izan nahi: sozialismoa aukeratu du, eta,
kristau fedea eta guzti, beste ideologiarik, duten sozia-
lista guztiekin batera jokatuko du.

Honela, bada, sozialismo bidetik jo nahi duten kris-
tauek erakunde* bat sortu baldin badute, behinbehingoa*
bakarrik izan nahi du erakunde horrek, eta, hain zuzen
ere, sozialismoaren eta kristau fedearen arteko problema
teorikoak eta praktikoak aztertu, sakondu eta argitu ahal
izateko.

Dena dela, «Kristauak Sozialismo Bidetik» mugimen-
duak kristau iraultzaileen bizitza, ekintza eta indarra ja-
rri nahi ditu gizartean eta munduan, Elizaren nazioarteko
diplomazi ekintza eta indar badaezpadakoaren* aurka be-
zala.

«KRISTAUAK SOZIALISMO BIDETIK» ETA BESTE KRISTAU ELKARTE BERRIAK

Zer harreman du mugimendu honek, azken urteetan
sortu diren kristau elkarte berriei? Zalantzarik gabe,
kristau elkarte hauetako askok politika eta gizarte ekin-
tza bizi nahi dute beren fedea; eta askok ezker aldetik
jotzen dute, denak sozialismoraino heldu ez badira ere,
eta, gizartearen azterketa egiteko metodo bezala, marx-
ismoa erabiltzen ez duten arren. Honela, egiaz esan dai-
teke, «Kristauak Sozialismo Bidetik» mugimenduak bes-
te kristau elkarte berrien dinamika biltzen, adierazten eta
pizkortzen duela.

Hain zuzen ere, elkarte horik* gehienetan ttipiak izan
ohi dira, eta ez dute beren kristau hautapenaren sus-
traiak, oinharriak, eskakizunak eta ondorioak sakonki az-
tertzeke eta eratzeko betarik.* Horregatik, elkarren arte-
ko harremanak beharrezkoak dituzte, talde guztien artean
Elizari eta kristau bizitzari ireki nahi dizkieten bide berri-
ak argitzeko, eta benetan Elizan hautapen berri bat era-
kusteko.

Ba dago beste bereizgarri bat «Kristauak Sozialismo
Bidetik» mugimenduaren eta kristau elkarte ttipi horien
artean. Hain zuzen ere, hark mugimendu bat izan nahi du,
kristau elkarterik dagoen edonon zabalduko dena. Ez du
«eliteen» mugimendua izan gura, herriko jendeteria bil-
duko duena baizik. Sorreran, beharbada, ba zuen «elite»
kutsua; baina berehala ohartu ziren, herriko jendeteria-
ren mugimendua izan behar zuela. Kristau elkarte ttipiak,
berriz, «eliteen» elkarteak gertatzen* ari dira gehienetan,
aukeratuen elkarteak, esan dezagun.

Gizarte berri baten bila, Elizaren bestelako aurpegi bat
adierazi nahi du mugimendu honek. Eta Che Guevarak
Hego Amerikari buruz zioenak, beharbada beste herrie-
tarako ere ba du baliorik: «Kristauak iraultza osoaren al-
de jokatzeke kemena izango dutenean, Hego Amerikako
iraultza ezingo du inork geldierazi».

Paulo AGIRREBALTZATEGI

daude, **dagoz**
dezagun, **daigun**
dezakete, **daikee**
dio, **deutso**
dizkiete, **deutseez**

liezaioke, **leiskio**
zioen, **inoan**, esaten zuen
zion, **eutson**
zioten, **inoen**, esaten zuten

"Euskara Batua zertan den" liburuz

Bere 8. zenbakian Jakin editorialak Larresoro idazle ezagun eta langilearen liburu mardul hau eskaini digu, ordu askotako lanaren ondoren moldatua. Obra honetan Euskara Batuak orain arte egin duen bidearen historia azaltzen zaigu urratsez* urrats, Euskaltzaindiaren erabaki ofizial guztiak azalduz eta komentatuz. Aditzari dagokionez, bestalde, erroak, atzizkiak* eta aurrizkiak,* morphemak oro,* hitz batez, kolore ezberdinez ageri dira, ikaste lana erraxtuz. Azkenean, Euskaltzaindiak aurten erabakiko omen duenaren zain gelditzen bada ere, gure euskal herrietako leku izenak agertzen dizkigu, 1964.ean Baionako Euskal Idazkaritzak* proposatu zuen bezala.

Liburua oso ongi egin dago; eta ez da dudatzeko, arakasta* handikoa izanen dela, alfabetatze lanetan dhardutenek biziki eskertuko baitute.

Zenbait punttutotan, dena dela, ez gaude batera egilearekin; eta zilegi* bekigu berauk hemen azaltzea. Gure ustez, **-au** bukaera deklinazioan kontsonantetzat hartzeak ez du biderik ematen, **auhen** barik,* **auen** idatzi behar dela esateko, kontsonante ondoko h-ak kendu behar direla eta. Honetaz, idazle gehienek lanei begiratu gero, Mitxelenak hitz elkartuei dagokienaz esaten (eta egiten) duenaren arauera,* ba dirudi gehienek **oinharri**, **onhartu** idazten dutela, azken hitz itxura optikoa bere horretan kontserbatzeko, inguruko erdaretan: **bonheur**, **malheur**, **malhechor**, **deshacer**... egiten denez, haietan **nh**, **lh** eta **sh** kontsonante talderik ukan ez arren.

Kontsonante ondoko h-ak, bestetik, bi zentzu bereizten diren kasuetan —Larresorok berak maiz* egiten duenez— errespetatu beharko lirake, salbuespentzat* harturik: **eri** «gaixo»/**erhi** (hatz(amar)), **ero** «zoro»/**erho** «hil» (azken biotan jatorriz hitza bera izan arren, usadio diferenteak dituen gero). Dena dela, dozenerdi bat hitz besterik ez dirake* guztiok, eta ez goaz horregatik larregi* mintzatzeraz.

39. horrialdean sibilantez esaten denaz ez gaude hain konforme x/tx delako hauziaz. s-/ts eta z-/tz delako kasuetan bai, gauzak argi ditugu, baina bestean ez. Larresorok, nahi adina* hitz erakuts diezaguke s- eta z-az hasi eta -ts, -tz-az bukatzen direnak, baina ez, Bizkai-Gipuzkoan bederen, diminutibo izan gabe, x-az hasi eta -tx-az akabatzen direnetakoak. -tx bukaera arras* eskasa dugu euskalki guztietan, halafede. Legetzat ezarri nahi zaiguna, ene eritziz, iparraldekoen usadio oso mugatu bat besterik ez da, bizkaitar, gipuzkoar eta nafar gehienon kontra.

Erabilera horrek, bestalde, literatur hizkuntzari beste akats bat dakarkio: ñabardurarik* eza. Azal dezagun beraz: **zakur** «normala»/**xakur** «ttikia» arteko bereizketak maila bi ematen digun artean, **zakur** «handia»/**txakur** «normala»/**xakur** «ttikia, maitea» bereizteak hiru maila eskaintzen dizkigu, literatur hizkuntzan erabat baliagarri direnak. Bereizketa hirukoitz hau, bestalde, Mitxelenak berak bere Fonética Histórica Vasca-n dioenez, Gipuzkoako eta Nafarroako leku askotan egiten da, eta ez doa, bikoitza doan bezala, **txalo**, **txori**, **txakur**, **txirla**, **txistu**, **tximist**, **txerto** hitz hedatuena* kontra. Noski, zenbait hitzetan, hala ere, ezingo litzateke mailaketa bera egin (zuri = txuri...); baina salbuespenok guttiena lirake, ez erregela.

Ba du liburu honek, horregatik,* gauza guztiz txalogarri bat: egileak, arazo eztabaidagarrietan, idazle ezberdinen eritzia, maiz* uste propioen kontrakoak direnak, dakar-

kigu, zintzoki azalduz gainera. Irakurleak, eritzi bakoitza zertan oinharritzen den ikusirik, gogoan gehiago betetzen diona hauta dezake, askatasun osoz.

Aditzetan, akasño bat aipa genezake. Forma laguntzaileratik irteten diren deribatuak ezartzean, orain arteko grammatika gehienek bezalaxe, hiru era azaltzen dizkigu Larresorok: **hurbildu**, **hurbiltzen** eta **hurbilduko** (naiz, nintzen, nintzateke...); laugarrena, **hurbiltzeko**, alegia,* ahan-tzi* zaio, bai eta —baina hau erabat* barkagarria da— bi deribatuok: **hurbildua** eta **hurbiltzekoa**. Erdaraz laugarren forma hau gutti erabiltzeak ez du esan nahi, nik uste, euskal grammatiketarik baztertu behar dugunik.

Euskaltzaindiak proposaturiko (ala Euskaltzaindiari proposaturiko?) hiztegia itzulpen bikoitzaz hornitu du, hura baliagarriagoa bihurtuz. Ez du hemen egin, ordea, inolako kokentariarik, hori bere lana ez duelako ustez, agian arrazoiak. Ba dago hiztegi horretan, ordea, orrazteko hainbat gauza: Zergatik **hosto**, baina gero **orri**, lehena bigarrenaren deribatu bat besterik ez bada, **ho(rri)-sto**, alegia? Zergatik (h)ur «H₂O», zuberotar dialektalismoaren ezagugarri den h horrekin, inork gaur literaturan erabiltzen ez duena? Eta abar.

Azkenez, liburuaren banaketari gagozkiolarik, esker-tzekoa da Arantzazuko txosten orijinala egilearen komentarioen ondoan jartzea; baina kontrastatzeko erraztasun hori, irakurtzeko gaiztasun bihurtzen da, liburua, zenbait pasartetan bederen,* nahaspilatsu xamarra geldituz.

Baina axaleko kontutxoak gorabehera,* obrari bere balioa ezertan kentzen ez diotenak, zin zinez* esan dezakegu, Larresororen liburu hau erabat lan serio eta baliosa dela: gure literatur hizkuntza, euskara, finkatzeko ahalegintan egindako urrats* handi bat.

Xabier KINTANA

dezake, daike
dezakegu, daikegu
diezaguke, deiskigu
digu, deusku
diote, deutsoe
dizkigu, deuskuz
genezake, geinke
zaigu, jaku



ELAIS ALAI
YURRE

DANTZATOKI GOXOA Igazandea ta jai egunez: 6 tatik 10.ra
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

SOINU KOADROFONIKOA

KAFETEGI **AMA & LUR** RESTAURANTA

BIBRAZIOAK

Kutsadurari* buruzko artikulu sail honetan, inguruko naturari eta gizonen bizitzari kalte egin diezaieketen gauzak aztertu nahi ditut. Horregatik, zaratekin batera hirietan* maiz* jasan* behar ditugun bibrazioak aztertuko ditut oraingo honetan.

BIBRADURA ZER DEN

Eguneroko hizkuntzan, bibradura dardararekin nahasten dugu sarritan. Zehazkiago esanik, bibradura, behin eta berriro gertatzen den joan-etorriko higidura* mota bat da, hots,* frekuentzia batez behin eta berriz jazotzen* den higidura mota bat.

Bibraduraren ezagugarriak* behinenak* frekuentzia eta anplitudea dira. Frekuentzia, denbora unitatean gertatzen diren joan-etorrien kopurua* da; eta anplitudea, higiduraren norainokoa edo zabalkundea da. Zenbat eta anplitudea handiago, hainbat eta bibrazioa ere handiago. Zenbat eta frekuentzia handiago, hainbat eta bibradura arinago.

ERRESONANTZIAK

Gorputz bakoitza, libreki bibratzean, frekuentzia berezi katzuez bibratzen da. Hau da, ez da edonolako* frekuentziaz bibratzen, bere handierari eta eiteari* dagozkien frekuentziaz baizik.

Frekuentzia berezi horien kausaz, erresonantzia izeneko gertakari bitxia agitzen* da batzuetan. Ikus dezagun zer den hau.

Demagun,* gorputz bat bibra erazi gura dugula. Edonolako frekuentzia ezartzen badiogu, bibraduraren anplitudea normala da, eta ez da ezer berezirik jazotzen. Baina ezartzen diogun bibrazioaren frekuentzia, gorputzari bakogionetarik bat bada, orduan anplitudea geroago eta handiagoa egiten da, eta balore izugarriak hartzera hel daiteke. Gertakari hau erresonantzia deitzen da.

Erresonantziaren kausaz, gauza harrigarriak gertatu izan dira. Hauxe, adibidez. Behin soldadu konpainia bat erritmoa gorderik hasi zen zubi bat pasatzen. Normalki zubiak erraz jasan zezakeen haien pisua. Baina, soldaduen erritmoa eta zubiaren bibratze frekuentzia berezia berdinak zirenez gero, zubiaren erresonantziaren efektuaz kraskatu egin zen eta hondatu.

PERTSONAK ETA BIBRAZIOAK

Beren lanean bibrazioak pairatu* behar dituzten pertsonak, gogorki sufritzen dituzte haien ondorioak: zorbioak,* arpak,* erhen* ukimenaren* galtzea, hezurren markestea,* urdaileko mina eta beste. Eritasun* hau guztiok mailu pneumatikoez kaleak zulatzen dituzten langileengan agertzen dira.


Gertakari hauen aurrean, ikertzaileek* jakin nahi ukan* dute, pertsonak nola pairatzen eta irensten* dituzten bibrazioak.

Horretarako, gizonaren gorputza oinbarrizko* bibratze sistemen multzo bat bezala kontsideratzen dute. Oinbarrizko sistema bakoitza, erresorte* batek eta indargetzaile* batek osatzen dute. Honela eginik, giza gorputza, irudian agertzen den moduko robot batez adieraz daiteke.

Nolako erresorteak eta indargetzaileak jarri behar diren jakiteko, konparaketa batzuk* egin izan dira robotaren eta egiazko pertsonen konportamoldearen artean (libreki eta beren gogoz prestatutako pertsonen baliatuz, noski).

Robota ondo moldatua egon izan denean, era guztietako esperimenduak egin izan dira haren laguntzaz. Honela,

gaur egun, batezbesteko* gizonaren bibrazioen jasate modua ezagutzen dugu. Bai eta zeintzuk diren giza gorputzaren erresonantzi frekuentziak ere.



BIBRAZIOAK GURU EGUNEROKO BIZITZAN

Hirietan* batez ere, bibrazio nekagarri batzuk jasan behar ukaten ditugu egunero. Kale bat zabaltzeko erabiltzen diren mailu pneumatikoak direla, edo etxe baten zimentarriak jartzeko zarta* erazten diren dinamitzko kartuak direla, edo beste gauzaren bat dela, asko sufritu behar dugu geure eguneroko bizitzan. Kasu hauetan guztietan, geure protesten protestaz, bortxatu egin behar genituzke etxegileak eta abar, bibrazioak gutiagotzera. Izan ere, ba dira horretarako tresna egokiak, bibrazio aislatzaileak halebegia.* Baina ba dirudi, gibelandiegiak gara, eta zaratak eta bibrazioak ixilik pairatzera etsituegiak.* Noiz hasiko ote gara, zarata eta bibrazioez arduratzen? Ba da ordua.

J. R. ETXEBARRIA

dezagun, daigun
diezaiekete deiskioee
diogu. deutsagu

genituzke, geunkez
zezakeen, eikean

CFDT: Autogestioaren eta Programa Bateratuaren artean

Urtarrilaren* 24etik 28ra, Frantziako bigarren sindikatua den CFDTk bilkura* nagusia izan du Parisen. Behinola,* kristau sindikatua izanik, duela zenbait urte konfesionaltasuna baztertu egin zuen. CFDTk sozialismoaren hautapena* egina du aspalditik.

Oraingo bilkura honetan, CFDTren jokabide batzuk* garbi agertu dira.

CFDT, Alderdi Komunistak, Alderdi Sozialistak eta Ezkerreko Alderdi Radikalak antolaturiko programa bateratuaren aldeko da. Baina ez erabat* eta ez osoki. Lehen urrats* bat, edo, nahi bada, gaitz* erdi bat besterik ez da hori. CGT, sindikatu komunistak, ihazko hauteskundeetarako programa horri, hastapen beretik eman zion bere baietza. Ez holakorik CFDTk.

Ihazko azken hilabeteetako merkatarien* lanuztea zela eta, kalera irten* behar zela erabaki zenean, CFDT ez zegoen oso ados.* CGTren kontrara. "Alliance contre nature" zen hura,* CFDTren ustetan. Ez zegoen han klase batasunik.

Sindikatu honen epaiketaren arabera,* gaur Alderdi Komunistak eta CGTk daramaten* burruka, monopolioen kontrakoa da, eta ez antikapitalista. Bestalde, orain oraingoz hauentzat lehen helburua agintea hartzea delako, hauen estrategia hau da: haserretu —edo pozik ez dauden— guztien elkartzea, hauteskundeetan programa bateratuaren garaitzapenerako.

Analisi horren arauetz, CFDTk sindikatuaren burrukaren berezitasuna eta autonomia azpimarkatzen du, politikazko dimentsioa ukatu gabe. Sindikatua ez da politikazko alderdien zerbitzari, ez eta "courroie* de transmission" ere:

"Herriko indar guztien batasunbide ezin liteke holarako programa bat izan, zeren eta antolamendu sindikal baten izatea ez baita gobernatzea, baizik eta langileen nahikundeak aurrera eramatea beti, gizarte harremanak eta pentsaerak aldatzea beti, era-

kundeen* eta ezarritako egituren* mugak gainezkatzea etengabe".

CFDTk eskua luzatzen dio GGTri. Zertarako? Sindikatuen autonomian oinarrituriko plataforma bat egin ahal izateko. Zer erantzungo ote dio CGTk?

Funtsean,* Programa Bateratu horrek ekar dezakeen aginte moduz ba du mesfidantzarik CFDTk. Oraingoa baino hobea izanen dela? Zalantzarik ez horretaz.

Ezkerraren programa hori autogestioaren izenean kritikatu du gogorki CFDTk. Edozein sozialismorekin ez dago ados. Bilkura honetan ere, "indar autogestiozaleen bateratasun gehiago" proposatu du. Eta hori, gizarteari benetako hautakizun* demokratiko eta sozialista eskaini ahal izateko. Hautakizun hori, Edmond Maire sekretariaren* eritziz, autogestiozko sozialismoarena da, dudarik gabe.

Joan Mari TORREALDAI

dezake, daike
dio, deutso
zion, eutson

Batasuna ez da erdietsiko, idazleek lehenbizi, hiztunek gero, forma berdinak eta berberak onhartu eta erabiliko dituztenean baizik. Euskaltzaindiak batasun bide bat eskaintzen die euskaldunei, bera ere euskaldun delarik, zernahi bide, denik malkarrena ere, biderik eza baino hobe delakoan. Euskaldunok dugu orain hitza.

MITXELENA

Carnicería BENJAMIN Harategia

Txahal eta bildots ezin hobek
Oilaskoak eta untxiak
Txahal hanka eta tripaki bikainak

Camino de Trauco, 5
Telefonoa: 454044

BILBO-7



KONFIRMATU GABEKO ZURRUMURRUAK

Gehienetan ongi informaturik egoten diren iturrieta-
tik azken orduan jakin dugunez:

- Espainia Euskal Herriaren existentziaz oraintsu konturatu dela eta, Madrileko bidai agentzia ezagun ba-
tek turistentzat safari batzuk eratzeko asmoa du, haietan
Gernikako arbola, euskal jai bat (rara avis), zenbait base-
rritar autoktono eta basati eta, suertatzen bada, Vardu-
liako bankuaren atraku klasiko bat ikusteko paradaz.*
Programma horrekin ez da dudatzekoa, jende ugari eto-
rriko zaigunik, euskaldunok ozeniarrek baino ezezaguna-
goak eta pitxiagoak izanki.

- Ipar Euskal Herrian, Guy Petit jaunak turismoa era-
kartzeko planarekin bat etorririk, zenbait ihesegile poli-
tikok, datorren udarako, metrailetadantza, grebalari* dan-
tza eta eskubonbadantza bizkaitarra presentatuko omen
dituzte, jantzi koloreztatu eta tresneria folklorikoekin.
Horretarako, gainera, frantses Gobernuari dirulaguntza
bat eskatu omen diote.




- Euskal Unibertsitatearen projektuaren aurrean, Va-
lladolid eta Salamancako ostatu eta apupiletxeek gober-
nuari protesta bat igorri* omen diote, guztiz kezaturik.
Antza* denez, Euskal Unibertsitatea eginez gero, nondik
biziko lirateke jende ondratu* guztiok? Hona, ba,* ka-
koa! Gobernuak, berriz, trankil egoteko erantzun omen
die, Euskal Unibertsitatea, Donibane Lohitzunekoaz kanpo,
ez dakiela ezer esanik.

- Zenbait idazle gazte bihurri eta jainkogabe garbi
horietariko batzuek, hurrengo Agirre eta Lekube'tar Jose-
ba Andoni Saria zein fraideri emango ote zaion eztabai-
datzen omen dihardute. Ba dira, ordea, ezein* fraideri
gabe,* **Andre Dona Zezilia martiriaren bizitza guztiz las-
timosoa**-ren egile laikoari emanen zaiola diotenik ere.
Auskalo*!


- Aspaldion zenbait familia handikitan ere modan
jarri denez, mihi* gaiztoek Kissinger jauna Bazko Erramu
baino lehen ezkondu dela diote. Ui, ui, ui!

- Aurten Euskal Herriko esnea (txarra, noski) gu-
tituz omen doa. Hala biz*!

die, **deutse**
diote, **deutsoe**
zaio, **jako**



GURUTZEGRAMA (38)



Ezker aldetik eskuin aldera. 1: Ezan aditzaren forma.—2: Izenorde pertsonala (alderantziz).—3: Zorroa (artikuluarekin).—4: Bokala. Irakurtzekoa (artikuluarekin). Bokala.—5: Sukaldean maiz* erabiltzen dugu. Bokala. Ukan aditzaren forma.—6: Aukera (aditza). Lapikoa.—7: Bokala. Ahaidea (artikuluarekin). Bokala.—8: Ibar haundia (alderantziz).—9: Afirmaziozko hitza (alderantziz). 10: Bilbo inguruko mendia.

Goitik behera. 1: Aurpegian dugu (artikuluarekin eta alderantziz).—2: Nota musikala. Kontsonantea.—3: Sukaldeko untzi mota (alderantziz). Bokala.—4: Kontsonantea. Esaten zuten. Kontsonantea.—5: Sosegua (alderantziz). Abelentzat zer zen Kain?—6: Salda (artikuluarekin). Premioa (alderantziz).—7: Adiskideren bat topatzen dugunean edo hargandik aldentzen garenean esaten dugun hitza. Apeza Bizkaian (alderantziz).—8: Kontsonantea. Iritxia (alderantziz eta artikuluarekin). Kontsonantea.—9: Gurasoa. Kontsonantea.—10: Txoria (alderantziz eta errepikatuz). Bokala.—11: Landare arantzaduna (artikuluarekin).

AZALPENA. Ezker aldetik eskuin aldera. 1: Dezan.—2: Guk.—3: Zukua.—4: A. Liburua. O.—5: Olio. A. Diot.—6: Hauta. Elitze.—7: A. Sentidea. A.—8: Haren.—9: Bai.—10: Pagasarri.

Goitik behera. 1: Ahoa.—2: La. P.—3: Sull. A.—4: D. Zioten. G.—5: Bake. Anaita.—6: Zukua. Sari.—7: Agur. Abade.—8: N. Heldua. R.—9: Aita. R.—10: Zozo. I.—11: Otea.

HIEROGLYPHIKOA



Noiz dator?

EUSKAL SALDA

A	N	C	O	N	D	N	I	M	S
M	U	A	T	Z	U	K	I	M	O
Y	Z	A	S	R	U	A	L	O	D
I	T	O	I	O	N	O	V	A	O
Z	R	I	Z	T	L	Y	M	A	N
T	A	R	T	A	I	O	B	R	O
B	I	R	A	B	I	E	T	I	S
I	O	G	R	M	D	E	P	A	T
S	A	L	O	O	N	I	U	Z	I
A	R	A	U	Z	U	M	A	I	A

Goiko koadro horretan Gipuzkoako zortzi herriren izenak daude, zuzenean jarrita. Aurkituko ote dituzu? Kontuan hartu behar duzu, horretarako, izenok goitik behera, behetik gora, eskuinetatik ezkerretara, ezkerretatik eskuinetara, edo eta zeharretara, diagonalean ere, egon daitezkeela, bai eta elkarren artean gurutzaturik ere.



HIEROGLYPHIKOAREN ERANTZUNA:

Zapatuan zortzi

EUSKAL SALDAREN ERANTZUNAK:

Donostia, Azpeitia, Zumaiá, Deba, Irun, Tolosa, Eibar, Oartzun.

HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

Ale honetan izartto batekin agertzen diren berbak

ADIN, edade.
ADINA, aina, beste, bezainbeste, bezainbat.
ADOS, conforme.
AGERI, documento público.
AGIAN, beharbada, nonbait.
AGITZE, gertatze, jazotze.
AHANTZI, ahantzu, ahaztu.
AHUL, makal.
AITORTEGI, confesionario.
AITZINEAN, aurrean.
AITZITIK, al contrario.
ALDI, papel, rol.
ALEGIA, halegia (hala + egia), a saber, es decir, esto es.
ALOKAIRU, alojer, soldata, jornal.
ANTZ, semejanza, parecido, ressemblance. (Antza denez + dirudenez).
ARABERA, arauera, según, conforme.
ARAUERA, arabera, según, conforme.
ARE, oraindik, aún, encore.
AREAGO, oraindik gehiago.
ARETO, sala, salón.
ARPA, calambre, crampe.
ARRAIKI, afablemente.
ARRAKASTA, éxito, succès.
ARRANTZA, rebuzno, braiment.
ARRAS, guztiz, osoki, zeharo.
ARRENKURA, queja.
ARTZAN, pastoral.
ASANBLADA, asamblea.
ASKI, nahiko.
ATALAGA, (atari + haga), tranca de puerta, barre de porte.
ATIZIKI, sufijo.
AURRIZKI, prefijo.
AUSAZ, probablemente.
AUSKALO, batek daki, a buscarlo.
AXOLATZE, arduratze.

BA, bada, pues.
BADAEZPADAKO, de dudoso valor.
BAKAN, raro.
BALDINTZA, condición.
BARIK, gabe, en lugar de, au lieu de.
BATEZBESTEKO, banabesteko, promedio.
BATZORDE, comisión, comité.
BATZUK, batzu, zenbait. (Batzuek aktibo, batzuk pasibo).
BEHAZTOPA, tropezar.
BEHINBEHINGO, provisional.
BEHINEN, principal, primordial.
BEHINOLA, behiala, en otro tiempo.
BENTURAZ, tal vez, peut-être.
BERE, beren.
BEREBIZIKO, apropiado, pintiparado, adecuado a propósito.
BERRIGUTUN, berri eskutitz.
BESTELAKO, osterantzeko, diferente.
BESTELAKATU, alienado.
BETA, asti.
BIKARI, vicario (BIKALGO, vicaria, vicariato).
BILDUMA, colección.
BILKURA, bilera, reunión, congreso.
BIZ, izan bedi.
BORTITZ, fuerte.
BULEGO, oficina, bureau.
BURDUNTZI, burruntzi, asador, rôtissoire.
BURUTAN ATERA, sacar adelante.

COURROIE, correa.
DAKIEGU, dakigu nonbait.
DAKUSAGU, ikusten dugu.
DARAKUSIGU, erakusten digu (deusku).
DARAMATE, daroe.
DARIO, le fluye, le mana. (Erion aditzaren forma).
DARRAIO, jarraitzen zain (jako).
DATEKE, da nonbait.
DELIBERA, erabaki.
DEMAGUN, eman dezagun (daigun), supongamos.
DEMAIGUTE, ematen digute (deuskue).
DEUS, ezer.
DIOKE, dio (deutso) nonbait.
DIRATEKE, dira nonbait, deben de ser, serán.
DITUZKE, ditu nonbait.
DOTORE, elegante.
DUGUINO, dugun bitartean.
DUKE, du nonbait.
DUKEGU, dugu nonbait.

EDEKI, ken, quitar.
EDONOLAKO, edozelako, nolanahiko.
EGITURA, estructura.
EGUN, gaur.
EHIZA, ihizi, caza, chasse.
EITE, forma geométrica.
ELABERRI, novela, roman.
ERABAT, guztiz, osoki, zeharo.
ERABATEKO, total, completo.
ERAGIN, influencia, impulso, coacción.
ERAITS, jaits eraz, hacer bajar, derribar.

ERAKUNDE, organismo, organización, entidad.
ERDIETS, lor, conseguir, lograr.
ERHI, dedo, doigt. (ERI, enfermo).
ERITASUN, enfermedad.
ERORI, jausi.
ERRESORTE, muelle.
ERRESUMA, reino, royaume. (ERREINU, reinado, règne).
ERRU, hoben.
ETSIPEN, desesperación, desilusión.
ETSITU, resignado. (Ikus «Axularren Hiztegia»).

EZ (EDUKI), no tener.
EZEIN, alguno.
EZAGUGARRI, característica.
EZTEUS, inútil, incapaz.

FROGA, prueba.
FROGATU, probado, demostrado.
FUNTS, fondo, sustancia.
GABE, en lugar de, au lieu de.
GAINDITZE, superar, pasar por alto.
GAITZ ERDI, mal menor.
GATAZKA, conflicto, debate, disputa.
CAUDEZILA, gaudela.
GERLA, gerra.
GERTATZE, resultar.
GISA, era, modu.
GIZABIDE, conducta humana, modo de comportarse las personas.
GIZAKOTE, hombrachón.
GIZATIAR, humano.
GIZATIARRAGOTU, hecho más humano.
GOGO, propósito.
GOMENDIO, recomendación.
GORABEHERA, a pesar de, malgré.
GREBA, huelga.
GREBALARI, grebari, huelguista.
GURUTZUNTZI, crucero.
GUTIZIA, apetencia, deseo.

HAIK, hareek. Haiek (heiek) aktibo, haik (hek) pasibo. (Ikus Lafitteren «Grammaire Basque», B2, horrialdea).
HAINTZAKOTZAT, en consideración.
HALEGIA (hala + egia), a saber, es decir, esto es. (ALEGIA, ficción).
HALTZARI, mueble.
HASTANTZE, apartar.
HAUK, honeek. (Hauk aktibo, hauk pasibo).
HAUTAKIZUN, alternativa.
HAUTAPEN, opción, elección.
HEDATU, zabaldu.
HEDATZE, zabaltze.
HERABE, uzkur, tímido.
HERRESTATU, arrastrado.
HERTS, cerrar, fermer.
HERTSADURA, presión.
HERTSI, hetsi, hitxi.
HEZKUNTZA, educación.
HIGIDURA, movimiento físico.
HIRI, ciudad.
HOBEN, erru, culpa.
HORIK, hoik, horreek. (Horiek aktibo, horik pasibo).
HORREGATIK, hori gorabehera, horregatio, a pesar de eso.
HOTS, a saber, es decir, esto es.
HURA, ha.

IDAZKARITZA, sekretalgo, secretariado.
IGAN, igon, igo.
IGORRI, bidali, bidaldu.
IHARROSKADA, iharrosaldi, sacudida, conmoción.
IHIZI, pieza cazada.
IHIZTATZE, cazar, chasser.
IKERTZAILA, investigador.
ILKI, jalgi, irten, atera.
INDARGETZAILA, amortiguador.
IRAIL, septiembre.
IRENSTE, absorber.
IRMOKI, irmeki, fermuki, firmemente.
IRTEN, urten, atera, jalgi.
IRTETE, urtete, ateratze, jalgitze. (Ez da esan behar irtetze).
ISTILU, conflicto.
IZATU, izan, sido.

JADANIK, ya.
JASAN, soportar, sufrir; soportado, sufrido.
JASATE, soportar, sufrir.
JAUSI, erori.
JAUSTE, erortze.
JAZARTZE, atakar.
JAZOTZE, gertatze, agitze.
JO, considerar. (Bazterreaz gero, kosta joz gero, ez da gobernatzerik. Axular, 145). Ene ustez, joaz, ikusiaz eta abar ez lirateke erabili behar euskara batuan, joz, ikusiz eta abar baizik

KAKARAKA, cacareo, gloussement.
KIDA, gida, guiar.
KILIKA, excitación.
KINKA, situación crítica.
KOAITA, cuita, anxiété.
KOPURU, número total.
KUTSADURA, contaminación.

LARREGI, iar, gehiegi, sobera.
LASTER, laster egin, correr, apresurarse.
LEGEZ, lez, bezala.
LEHIA, celo.
LEIOA, Lejoa, Lejona.
LEIZE, leze, caverna, sima.
LEKUKO, testigu.
LILURATU, encantado, fascinado.

MAIZ, sarri, sarritan, usu.
MALGU, hacer flexible. (MALGUTU, hecho flexible).
MARKESTE, markets bihurtze, deformarse, deformación.
MARMAR, murmujeo, marmottement.
MARRU, bramido, bramement.
MEHATXURTICA, mehatxu + urtika, lanzando amenazas.
MEN, poder, jurisdicción, autoridad. (MENDEAN, en el siglo).
MERKATAL, comercial.
MERKATARI, comerciante.
MIHI, mihin, lengua.
MIKO, apur, pixka.
MINTEGI, seminario.
MURRUSA, mugido, mugissement.

NAHI, nahi izan (ukan), querer.
NAGI, nagi izan, ser perezoso.
NABARDURA, matiz, nuance.

OHI, izandako. (Maisu ohia = exmaestro).
OIHU, oihu egin, gritar.
OINHARRIZKO, elemental.
OLDE, instinto.
ONDIKO, infortunio.
ONDRATU, prestu, honrado, honorable.
ON EDUKI, mantener, sostener.
OPARO, abundantemente, profusamente.
ORMA, paret. (HORMA, hielo, glace).
ORO, guzti.
OROKOR, general.
ORRO, rugido, rugissement.

OSTERA, ordea, aldiz, berriz.
OSTERANTZEKO, diverso, distinto.
OTSAIL, febrero.

PAIRATU, sufrido.
PARADA, abagadune, aukera, era, ereti, ocasión.
PAUSA, descansar, reposar.
PIKOTA, picota (antiguo instrumento de suplicio). Pikotara joan = ir al traste, ir a la picota.
POSTARI, cartero, facteur.
PROMETA, prometer. (PROMETATU, prometido).

SALBUESPEN, excepción.
SEKRETARI, secretario. (Ikus «Axularren Hiztegia»).

SEN, juicio, estado normal.
TAILU, taxu, clase.
TXALMA, xalma, albarda, bät.
TXOSTEN, idazlan.

UGAZABA, jabe, amo, dueño, maitre.
UHIN, olatu, ola, vague.
UKIMEN, sentido del tacto.
UKAN, izan. (Ukan akordio, izan pasibo).
URRATS, pauso.
URRUMA, lamento.
URTARRIL, enero, janvier.
UZTAIL, julio.

XIT, altc, altamente, eminentemente. (Pilotak xitu [xit + tu] egin nau, me ha sobrepasado la pelota. Neskatila xito [xit + to] ederra, muchacha eminentemente hermosa).

ZAIKOE, zaiu nonbait.
ZAMA, karga.
ZARTA, explotar (ZARTATU, explotado).
ZAUURTU, zauritu.
ZEINAREN, cuyo, del cual.
ZEREN, ze, pues.
ON EDUKI, mantener, sostener.
ZINEZ, benetan.
ZORABIO, vértigo.
ZUKETEN, zuten (eben) nonbait.
ZURRUNGA, ronquido, ronflement.
ZURRUPATU, absorbido, sorbido.

ADITZ INFINITIBOA

Axularrengan

Zure etxea, egon eta ibili zaren leku guztietan, betiere izatu^a da euskaldunen etxea, pausalekua eta portua: Guztiek zuregana laster.^a Zuri bere^a arrenkurak, egitekoak, koaitak^a eta ondikoak^a **konta**. Eta zuk guztiak arraiki^a eta algeraki **errezibi**, zuhurki **kontseila**, **kida**, **goberna**, eta burutan^a **atera** (2: 42-17).

Jaunak **eman**, Jaunak **edeki**,^a Jaunak plazer zuen bezala egin da. Biz,^a bada, Jaunaren izena benedikatu (203: 401-13).

Akusatu zuten (fraide gazte bat) bi lekukok^a abadearen aitzinean,^a abadearekin berarekin aditurik. Akusatuak **uka**, oihu,^a faltso zela, gezurra zela, ez zela halakorik, ez zuela hobenik.^a Baina lekukoek **mantena**, on^a **eduki**, hala zela (249: 489-11).

Hala dira, bada, jende tailu^a batzuk ere. Hasten dira ongi, ordea ez dira aitzinatzen: den traburik ttipianean **behaztopa**^a; kanabera bezala **malgu**^a eta **plega**; kamaleona bezanbatetan **muta**; finean firmetasunik ez,^a hobereanean **falta** (297: 583-14).

Frantziako filmegile berriak

Lehenengo batetan Pariseko sentsazio literario bat aipatu nuen hemen bertan. Milan Kundera-ren «La vie est ailleurs» elaberria,* Prix Médicis. Bat ezezik, oraingoan bi sentsazio aipatu beharrean nagokizu. Film industrian hauk.* Aitortu beharrean bainago, elaberri hura* irakurtzen ari nintzelarik, ezin nuela Claude Faraldo-ren «Themroc» filmea burutik kendu. Eta filme honek Jean Eustache-ren «La maman et la putain» aipatzea eskatzen du. Hirurok bata bestearen eskutik datozkigu.

Egungo iraultzazale gazteek sarri aipatzen dituzte errepresio seksual, askatasun seksual, seksuaren emantzipazioa eta gainerakoak. Freudo-marxismoaren kanpainak nondiknahi entzuten dira. Gazte gutik irakurri omen du **Kapitala**; gehienek, ordea, W. Reich. Eta askok Marcuse-ren parte horixe berori. Ba dakizu: neurotiko frustratu eta inpotenteen gizarte bat omen da gure hau.

Iraultzazale gazteek gizartea alde horretatik jorratu badute, besteren batzuek arrazoipide horri buelta eman diote. Iraultzazaleen beren psikoanalisi horrelaxe egin nahirik, alegia.* Gazteon iraultzazaletasunari makina bat esplikazio eman zaio orduan, odol tentsiotik, haurtzaroko esperientzia eta mila gisatako* frustrazioetaraino. Iraultzazale horik* neurotiko eta frustratu batzuk direla errepikatuko dizute. Arrazoi ona da nonbait edozeinen kontra ere.

Torrealdairen **Iraultzaz** liburuak (JAKIN, 1973) ez du kapitulu hau haintzakotzat* hartu. Agian* ez zaio aski* serio iruditu. Hala ere, autorea Parisen bizi da. Eta egunero ikusi behar du, kapitulu honek jokatzen duen aldia.*

Kundera-ren elaberriko Jaromil, poeta iraultzazalea, amaren gonapetik ezin askatu den gaztea genuen.

Faraldo eta Eustache-ren filmeetako iraultzagileak ere seksualki nahastuak dira. Filmegile biok Frantziako uhinik* berrien berrienekoak ditugu. «Unifrance»k filmegile berrietaz atera zuen foiletuan, biok ohorez aurkezten dira, promesa haundi bezala, beste hamar gazterekin batera. Goian aipaturiko bi filmeetara mugatuko naiz.

Eustache-ren «La maman et la putain» 1968.eko gertakarien ondoko filmea da. Baina hemen jadanik* ez da mundua iraultzeko gogorik eta asmorik gelditzen. Etsipena,* nostalgia. Harreman pertsonalen maila hutseko errebolta. «Iraultza» pribatua. Bulgaritatea. Mutil hau narziso bat da. Bere buruaz dago maiteminduta; eta zalantzan dago, ez baterako eta ez besterako, «maman» heldu samar baten eta «putain» gaxte baten artean.

Faraldo-ren filmea guztiz bestelakoa* da, eta xit* antzekoa. «Themroc» ere funtsean etsipenaren filme bat da. Eta hau ere ikuspide psikoanalitikoaz baliatzen da. Burruka haundiak ez du deus* ekarri. Indar talde sozialak (alderdiak, Estatua bera, sindikatuak, estudiante organizazioak berak ere bai ausaz*) denak berdina dira. Presondegiak. Faraldo-ren protagonistak, Themroc langileak, ez dihardu inoren izenean. Ez inolako ideologiaren eta ez inongo talderen izenean. Bere izen propio hutsean dabil, eta bere askatasuna bakarrik bi-latzen du. Themroc-i berdin zaio, besteekin zer gertatuko den. Gizarteaz ez da miko* bat axolatzen.* Ez du besteak «salbatzeko» asmorik. Bere kontura bizi da, bere askatasuna konkistatzen du. Hor konpon besteak. Bere barneari darraio* bakarrik. Themroc-ek ez du inolako «teoriarik» behar, errebelatzeko eta iraultzeko. Teoria bat ere presondegi bat da, askatasunaren teoria izanik ere.

Faraldo-k bitzta guztia araukatu eta neurtu eta mugatu eta hertsirik* sentitzen du. Bitzta kaiola bat da. Erlojeriazko mekanika bat. Goizetik gauerarte, jaiotzatik heriotzararte, zure minutu guztiak programaturik daude. Zer egin, zer pentsa, zer esan, zer isilik gorde, zein ideologia profesa, non pausa,* non sofri, zergatik zoriontsu izan, zergatik protesta, zertarako amets egin eta denbora alferrik gal. Faraldo-ren Themroc, makina hori hautsita, kanpora irteten* da. Hizkuntzaren hertsaduratik* kanpora, adibidez. Faraldo-ren

pertsonaiek zurrunga* eta urruma* egiten dute, irrintzi eta arrantza,* kakaraka* eta murrusa,* orro,* marru* eta marmar: **non-sense** hizkuntza batez mintzo dira, gorilak bezalatsu. Erabateko* ordenaren kontra, guztizko desordena.

Themroc langilea, mutilzaharra, amaren zigorpean bizi da. Seksualki arras* frustratua da. Amaren menpean, eta arrebaren kilikaz* eta gutiziaz* kiskailtzen beti. Beste edozein bezalako goiz honetan ere lanera doa. Bizikletan lehenik, autobusean gero, azkenik metroan. Noizbait ere hor dago, gizona progetxagarri den tokian, produkzioaren tenplu santuan, eta lanari lotzen zaio. Themroc lantegi honetako pintore da. Leihotik, nagusiak nola neska sekretari* bati eskua sartzen dion ikusten du. Larri da. Bere kuriositateak muturreko bat irabaziko dio. Eta sudurretik odola darionean,* Themroc-en transfigurazioa gertatzen da, itxuraldaketa. Langile zintzo batek egin **behar** ez duena eta **egiterik ez dadukana** egiten du: ogibidea errekarra bota, sekretariatz abusua eta mehatxurtika* eta marmarka lantegia abandona. Etxean atea krisketaz eta zerrailuaz herts,* atalaga* bota, ormak eraits,* armario eta haltzariak leihotik behera jaurtiki, eta bizitokia leize* konberti. Eta garaitzapenaren irrintziz, berekin arreba harrapa. Eta horra Themroc, lehen gizon troglodita izatera itzulirik, Neandertalgo gizon bat bihurturik. Basapiztia jator.

Hauzokoak eskandalo bizian. Polizia dator. Izugarrizko eztabaidak eta solasak, trogloditaren eta ordenaren zaintzaileen artean, beti **non-sense hizkuntzan**, noski. Negar gaza botatzen diote poliziek, baina honek ez du Themroc freskatu eta bizitu besterik egiten. Orain hauzoko denak hasten dira ormak puskatzen, haltzariak botatzen eta leize gizon bihurtzen, oldeak* eta gogoak ematen diena eginez.

Gauean Themroc piztia, xuhur xuhurki eta polliki polliki, ihizatzeraz* irteten da, hiriko «basora». Zelatan dabil gure gizakotea,* hiri basoa arriskuz beteta baitago. Ihiztari piztiak, oldar izugarri batez, polizia bat harrapatzen du. Leizera herrestaturik,* bere andreen konpainian, ihizia* burduntzian* erre eta jan egiten du. Themroc-ek jadanik gizaratearen hertsadura eta zanpaldi guztiak azpiratu ditu. Libre da.

Azkenerako, Paris guztia orroka ageri da, basapiztiaren jatorrizko oldeetara itzulirik, berriro gizon izatetik jatorrizko abere jator izatera bihurturik.

Iraultza, aberetasun garbira itzultzea da. Oldeen jatorrizko espontaneitatera bihurtzea. Historiak eta kulturak gaineratu dizkiguten txalma* eta zama* guztiak hastantzea.*

Zer nahi du Faraldo-k? Funtsean* horixe dela iraultzazaleek proposatzen duten bidea? Ala horixe dela egin beharrezko zinezko* Iraultza? Dokumentatu bakarrik ala proposatu egiten du?

Dena den, ez da dudarik: beste garai batzuk agian* lotsa eta herabe* ziren hain gordin mintzatzeko. Edo ez ziren problema honetaz hain garbi ohartu. Egun,* nolana ere, errepresio seksualaren arazoak berebiziko* inportantzia du Iraultzaren arloan. Iraultzaz mintzatzean, psikoanaliaren hizkuntza mintzo ohi da.

Aho biko ezpata: Iraultzazaleek, irauli beharrezko mundu gaizto honetako errepresio seksualak aipatzen dituzte. Eta mundu honek, iraultzazaleen beren frustrazio eta konplexu seksualak aipatuz erantzuten du.

Eta batek jakin nork duen arrazoi gehiago.

LAZKANO MENDIZABAL

daude, dagoz
die, deutse
dio, deutso

diote, deutsoe
dizkigute, deuskuez
dizute, deutsoe